

# Gatazkak egindako jendea

1930eko Extremadura eta 1960ko Bizkaia aurrez aurre jarri ditu Toti Martínez de Lezeak eleberri berrian

Itziar Ugarte Irizar Donostia

Ezbairik gabe, atzean gelditu berri den Durangoko 53. Azokan ilara lizeanak eragin dituen idazlea da Toti Martínez de Lezea (Gasteiz, 1949). *Nur eta ortzadar-txorria* haur eta gazteentzako lana aurkezten aritu da, baina baita helduen literatura barruan katalogatutako eleberri berri bat ere: *Malakoak lur antzuan*. Ereinek argitaratu du, eta Martínez de Lezeak azken lanetan landu duen ildotik dator: «izenik ez dutenen istorio txikiak» ildotik. 36ko gerra aurrean abiatzen da kontakizuna, Extremaduran (Espainia), eta Bizkaiko industrializazio urte-etaraino heltzen da; tardean, matasun istorio bati leku eginda. Ele bitan plazaratu du eleberria idazleak; ohi duenez, gaztelaniaz idatzi du jatorrizkoa, eta Miren Arratibelex itzuli du.

«Pertsonen istorio bat da, ez gerrako istorio bat», hori argi utziz abiatu zuen aurkezpena idazleak. «Gerra nozitu zuen» jendea eraman du erdigunera, eta, beste edozeren gainetik, hori nabarmendu zuen; ideiak eta ideialak aparte, «personen eguneroko bizimoduaz» ari dela eleberrian. Hala, nahita, ez ditu behin ere sartu *frankismoa*, *sozialismoa*, *nazionalismoa*, *komunismoa*, *militarrak*, *Guardia Zibila*, *gudariak* eta gisako izendapen zehatzak. «Zertaz ari naizen, orduan? Ba, gutaz. Herri xeheaz, kaleko jendeaz, eta, ez si eta ez no, ideologia batekin inplikaturata egon gabe, gure burua hondamendi baten barruan topatzen dugunoz, bakar-bakarrik bi bando elkarren aurka hasten direlako». Historian maiz gertatu da



Toti Martínez de Lezea, Donostian, nobela berria eskuetan, euskarazkoa ale bat eta gaztelaniazkoa bestea. JON URBE/FOKU

hori, idazlearen arabera. Eta, kasu honetan, historia hurbilean hori nola jazo den kontatu nahi izan du berak.



**Inork ez du etxea uzten gustuz; goseagatik eta beldurragatik uzten da etxea, eta biak daude nobelan»**

Toti Martínez de Lezea idazlea

Bi jokaleku eta denboratan kokatu du istorioa Martínez de Lezeak. 36ko gerra aurreko Extremaduran, Damaso deituriko pertsonaia azalduko da: jauntxoaren lurrak lantzetik bizi den nekazari bat. 30 urte geroago, haren seme

Manuel agertuko da, Bizkaiko fabrika bateko langile. Frankismoan izan zen grebarik handienean hartuko du parte hark, eta Extremadurara itzuli beharko du, eta ezagutzen ez zuen familiaren istorioa jasotzen hasi.

Euskal herritar askoren jatorria han dagoelako eraman du istorioa Extremadurara Martínez de Lezeak. «Askoren aitona-amonek handik ihes egin behar izan zuten. Inork ez du bere etxea uzten gustuz; goseagatik eta beldurragatik uzten da etxea, eta biak daude nobelan». Horrez gain, 36ko gerran Extremaduran milaka fusilamendu egon zirela ere ekarri nahi izan du gogora idazleak; baita haietako gehienak nekazariak izan zirela ere, 20-50 urte bitarteko gizonetako gehienak. «Gizon langileen be-

launaldi bat desagertu egin zen». Bizirik iraun zuten askok eta haien ondorengok Euskal Herrira egin zuten ihes, Bizkaiko meatzetara eta Gipuzkoako lantegietara. «Hemen ere izugarrikeriak bizi izan zituzten, eta kontatu egin behar dira».


## Hurrengoa, bi urte barru

Idaztea «kostatu» zaion eleberrietako bat izan dela aipatu zuen egileak lana aurkezterakoan. Idaztera jartzean «gozatzea» helburu duela gaineratu zuen, baina azken lan honekin ez duela halakorik sentitu. «Hala ere, kontatu beharra igartzen nuen».

*Isilpean gordea* (Erein, 2015) eleberriarekin abiatutako bidari eusteko gogoia ere berretsi zuen, nobelagintzak iragan hurbila kontatzeko balio diolakoan.

## Aitzina Folk jaialdia azken txanpan sartu da

**MUSIKA** • Ataxia telangiectasia gaitzaren inguruko ikerketa diruz laguntzea da Aitzina Folk jaialdi solidarioaren xedea, eta larunbatean jo nahi du goia: Alboka eta Capercaille taldeen kontzertuarekin Mendizorrotza kiroldegia betetzea dute helburu. 19:00etan hasiko da kontzertua.



Jaime Torres. CIN BIANCHI DHUICQUE

## Jaime Torres charango jotzaile argentinarra hil da

**MUSIKA** • Jaime Torres musikari argentinarra astelehenean hil zen, Buenos Airesen, 80 urterekin. Charangoa jotzen maisu izateaz gain, Argentinako folklorearen ikur ere bazen. Besteak beste, Ariel Ramirezen *Misa criolla* lana (1964) munduan zehar ezagutarazi zuelako.


## IX. Goiart-Ordizia saria, Pablo Astrainentzat

**ARTEA** • Pablo Astrainek (Donostia, 1986) irabazi du Goiart-Ordizia sariketako lehen saria, *Heuristica* pinturarekin. Amaia Santamariak (Bergara, Gipuzkoa, 1992) jaso du bigarren saria, *Bizileku-Bizimodu* instalazioarekin, eta Udane Juaristik (Azkoitia, Gipuzkoa, 1985) hirugarrena.

## Mendeurrenaren harira, Principal antzokia beteta

**URTEURRENA** • Gasteizko Principal antzokiak 1918ko abenduaren 14an ireki zituen ateak; Antzoki Berria deitzen zen orduan. Mendeurrena ospatzeko, hainbat emanaldi antolatu ditu Gasteizko Udalak, eta, erakunde horrek jakinarazi duenez, emanaldi ia denetan erabat bete da antzokia.

berri laguna




**Gerriko**

Elosegi, 16 • LAZKAO  
Tel.: 943-88 65 00 • Faxa: 943-88 79 71  
gerrikoliburudenda@euskalnet.net

**GABON HAUTAN IRRIBARREA ETA ELKARTASUNA GURE ETXeko PROTAGONISTAKI**

ZORIONTSU IZAN eta EGUBERRI ONI



DIETISTA · NUTRIZIONISTA & COACH  
www.amarianutrizioa.com

- LIBURUAK
- JOSTAILU DIDAKTIKOAK
- ESKOLA ETA BULEGO MATERIALA
- OPARIAK